



OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

Tomasene kultur etxean, 2021eko maiatzaren 27an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin: Antxon Alfaro Sagasti, Blanca Andueza Mnez. de Muniain, Jose Angel Apaolaza Udakiola, Elena Arrieta Yarza, Rosa Batalla Hernáiz, Angel Calvo Barco, Estrelli de la Cruz Echeverría, María Luisa de la Torre, Joxerra Fernández Cañada, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Iñako Indaberea Puy, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Maribel Manzano Herce, Agustín Rodríguez Apaolaza, Dori Ruiz Lorenzo, Jon Serrano Gamaza, Mikel Ubillos Salaberria, Pepi Sánchez (Jon Ander Vega Sánchez), Juan Andrés Vega García, Jose Ramon Zapirain Larraza.

Batzarera ezin izan dutela etorri esan dutenak: Emiliana, García González, José Luis Mangas Sánchez, Karlos Solana Arruti.

Batzarra hasi aurretik 2020. urteari dagokion Estibaus buletina banatu zen. Segidan, batzarraren gai-zerrendari heldu zitzaion.

1. 2020. urteko memoriaren onarpena

Idazkariak 2020 urteko memoria aurkeztu zuen:

1. Altzanet

Urtean zehar edukiak eguneratu eta webgunea mantentzeko lanak egin dira. Edukiei dagokienez, Lekukoak atala nabarmentzen da, non orain arte jasotako testigantza gehienak (24 grabaziotik 15) ikus daitezkeen, edukien arabera antolatuta.

Sare sozialetan egondako aktibitatea ere nabarmena izan da:

- Facebook: 436 jarraitzaile, 56 argitalpen, 45.972 irakurketa.
- Twitter: 377 jarraitzaile, 38.039 irakurketa
- Youtube: 33 harpidedun. Denera, 92 bideo eta 8.505 ikustaldi.
- Flickr: 8 album, 253 ikustaldi.

2. Argitalpenak

2.1 Estibaus bloga

Estibaus blogean 60 sarrera argitaratu dira. Horietatik 50 euskaraz zein gaztelaniaz daude, 3 soilik gaztelaniaz eta 4 soilik euskaraz, eta beste 3 galegoz. Kopuruak atalez atal sailkatutik hauek dira: Tokiko Bilduma 7, Kronika zaharrak 5, Ikerketa 6, Altzanet 1, Ibilaldia 4, Notiziak 9, Kronikak egungoak 10, Bertsokak 2, 80 urteko anexoia 6, Iritzia 7, eta In memoriām 3.

Estatistikei erreparatzen badiegu, denera 11.599 erabiltzaile egon dira (-1.105) eta 39.760 bisita (+3.201).

2.2 Egutegia

Abenduaren 12an 2021 urteko egutegiaren aurkezpena egin genuen Larrotxene kultur etxean, osasun-mugek eta eguraldiak baldintzatutako egoera berezi baten erdian. Garberan ikusgarri egondako "Intxaurren: Ibilbide bat iraganetik / Un recorrido por el pasado" erakusketa aretoan zintzilikatu genuen. Erakusketako bi argazki erabili ditugu egutegiak osatzeko. Handiak Intxaurren Zaharraren eta Mirakruz Gainaren bista erakusten du, Lizardi magaletik hartua, lehen planoan idi bikote eta baseritarrak lurra goldatuz erakutsiz. Argazkia Ricardo Martinek egin da eta 1930 urte aldekoa. Egutegi txikian Huécanos y Pedraglio likore fabrikako la emakume langile agertzen dira, 1940 ingurukoa.

Egutegia Casaresen bitartez banatu zen eta baita egutegia argitaratzen lagundu digutenen bitartez ere: Erdikoa taberna, Zubiaurre okindegia, Nido eta Zumardi tabernak, Lizarra kanpina, eta Artzak-Ortzeok Elkarteak.

En Tomasene, a las 07:00 de la tarde del día 27 de mayo de 2021, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de: Antxon Alfaro Sagasti, Blanca Andueza Mnez. de Muniain, Jose Angel Apaolaza Udakiola, Elena Arrieta Yarza, Rosa Batalla Hernáiz, Angel Calvo Barco, Estrelli de la Cruz Echeverría, María Luisa de la Torre, Joxerra Fernández Cañada, Koro García Moraza, Karmentxu García San Román, Susana Hernández Corchete, Iñako Indaberea Puy, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Anttoni Loro Moreno, Maribel Manzano Herce, Agustín Rodríguez Apaolaza, Dori Ruiz Lorenzo, Jon Serrano Gamaza, Mikel Ubillos Salaberria, Pepi Sánchez (Jon Ander Vega Sánchez), Juan Andrés Vega García, Jose Ramon Zapirain Larraza.

Comunican que no podrán asistir: Emiliana, García González, José Luis Mangas Sánchez, Karlos Solana Arruti.

Antes del inicio de la Asamblea se reparte el boletín Estibaus correspondiente al año 2020, pasando a continuación, a tratar el orden del día de la Asamblea.

1. Aprobación de la memoria del año 2020

El secretario presentó la memoria del año 2020:

1. Altzanet

Se han realizado la actualización de los contenidos y el mantenimiento de la web. En cuanto a los contenidos destaca el apartado Lekukoak, en el que ya se pueden ver buena parte de los testimonios recogidos (15 grabaciones de 24), organizado por temas.

La actividad en las redes sociales ha sido importante:

- Facebook: 436 seguidores, 56 publicaciones, 45.972 lecturas.
- Twitter: 377 seguidores, 38.039 lecturas
- Youtube: 33 suscripciones. En total, 92 vídeos y 8.505 visionados.
- Flickr: 8 álbumes, 253 visitas

2. Publicaciones

2.1 Blog Estibaus

En el blog Estibaus se han publicado 60 entradas, de ellas 50 en euskera y castellano, 3 solo en castellano, 4 solo en euskera, y tres en gallego. El número de entradas clasificadas por categorías: Colección Local 7, Crónicas antiguas 5, Investigación 6, AltaNaturaleza 1, Excursiones 4, Noticias 9, Crónicas actuales 10, Bertsokak 2, 80 años de anexión 6, Opinión 7, In memoriām 5. Mirando a las estadísticas, ha habido 11.599 usuarios (-1.105), con un total de 39.760 visitas (+3.201).

2.2 Calendario

El 12 de diciembre en Larrotxene tuvo lugar la presentación del calendario del año 2021, en medio de unas circunstancias especiales marcadas por las limitaciones sanitarias y la lluvia. Las fotografías de la exposición "Intxaurren: Ibilbide bat iraganetik / Un recorrido por el pasado", que se ha podido visitar pocas semanas antes en Garbera, estuvieron colgadas en la sala, aunque en un principio estaba pensado colocarlas en la calle. Dos de las fotos fueron las elegidas para los calendarios. En el grande podemos ver una foto de Intxaurren Zaharra y el Alto de Miracruz, tomada desde la ladera de Lizardi por el fotógrafo Ricardo Martín. En el calendario pequeño aparece un grupo de cuatro trabajadoras de la fábrica de licores *Huécanos y Pedraglio*, de Intxaurren.

El calendario se repartió en Casares, y por medio de los que han ayudado en la publicación: Erdikoa taberna, Zubiaurre okindegia, Nido eta Zumardi tabernak, Lizarra kanpina, eta Artzak-Ortzeok Elkarteak..

3. Dokumentazio zentroa

3.1 Altzako Tokiko Bilduma

Abenduaren amaieran, Altzako Tokiko Bilduman 19.204 dokumentu daude katalogatuak (1.513 dokumentu 2020ean katalogatuak), eta horietako 15.601 Interneten bitartez www.altza.info webgunean kontsulta daitezke, aurreko urtean baino 1.620 gehiago.

Dokumentu berri gehienak (1.149) Gerra Zibilaren garaiko hemerrotekakoak dira, atzetik dokumentu historikoak (388) eta argazkiak (230) doazelarik; ikus-entzunezko 31 dokumentu berri daude.

Hedapenari dagokionez, web orriaren erabilpenak datu onak ematen jarraitzen du, Google Analytics-en arabera: erabiltzaile kopurua 4.002koa da, 250 erabiltzaile gehiago, eta bisita kopurua 83.299koa, 19.525 gutxiago.

Hedapenarekin jarraituz, Casaresen bertan ostegun arratsaldetan, 17:30tik 19:30era eskaintzen den kontsulta zerbitzua martxoetik hona pandemiarekin erabat baldintzatuta egon da; 8 pertsonak erabili dute. Kontsulta zerbitzuari lotuta, 284 mezu trukatu dira posta elektronikoen eta telefono bitartez. Horietako batzuk unibertsitateko lau ikerketen inguruan. Tokiko Bildumaren edukiei buruzko sei artikulua argitaratu dira eta, aurreko bi urteetan bezala, Garbera merkatal zentroan argazki-erakusketa atondu da, Intxaurren auzoari buruzkoa.

3.2 Altzapedia

www.altza.eus gunean, AHMren argitalpenetatik eta dokumentazio-zentrotik datoen erreferentzietatik abiatuta eraikia, azken urte honetan 25 fitxa berri argitaratu dira eta pixkanaka dagoeneko irekita zeuden beste fitxa batzuk osatu dira. Guztira 839 fitxa ditu.

4. Lekukoak proiektua

Altzanet webgunea berriro martxan jartzearekin batera Lekukoak proiektuaren barruan egindako grabazioen edukiak modu egituratu batean eskaintzen hasi gara. Edukien edizio eta kodifikazio prozesu baten ondoren, une honetan honako hauei egindako elkarrizketak kontsulta daitezke: Alfonso Cañamero, Antonio Dávila, Dionisio Etxauri, Juan Sánchez, Lucia Saiz, Luis de la Torre, Nieves Irisarri, Pakita Anabitarte, Pako Muñoa eta Pepita Sarriegi.

Une honetan, 10 ordu baino gehiagoko testigantzak 128 zatitan gaiaren arabera kontsulta daitezke. Eduki horiek Youtubeko kanal batera igo ditugu, eta bertara Altzanet webgunetik sar daitezke. Urte honetan zehar, gainerako elkarrizketak eskainiko ditugu.

5. Ibilaldiak

5.1 Plus 55, Altzatik abiatutako ibilbideak

Hauxe izan da 2020. urtean burututako ibilaldien egitasmoa. Aurtengoan, pandemia izan dela eta, urria eta azaroa hilaibeteetara mugatua.

- Urriak 22: ALTZA-MOLINAO-TXIPRES-KUTARRO-IRASUENE- ALTZA
- Azaroak 5: HERRERA - SAN MARKO - TXORITOKIETA
- Azaroak 12: HERRERA - ULIA - SAGUES
- Azaroak 19: ALTZA - SANTIAGOMENDI
- Azaroak 26: ALTZA - MITXINTXOLA (JAIZKIBEL)

Ibilaldiak antolatuzko partaideen kopurua mugatu behar izan da, aurretik izena eman, talde txikietan antolatu, eta funtsezko segurtasun neurriak kontuan hartu behar izan dira (musukoa, distantzia). Hori ez da oztopo izan ibilaldiak lagun artean eta giro ezin hobean burutzeko.

5.3 Andatza mendiko errota harrobiak eta harriak

Otsailaren 7an, Javi Castoren eskutik Andatza mendian dauden Orreagako monasterioaren mugarriak eta sei errotarri harrobi bisitatu genituen, bidean inguruari buruzko azalpenak jasoz (geologia, historia, lanbideari buruzkoak, harginen izenak, garraio lana, salneurriak, ezaugarriak, auziak, e.a.). 19 lagun parte hartu zuten.

5.4 Jaizkibelgo errotarri-harrobiak eta Yurrita errota

Urriaren 24an, Javi Castrok Jaizbelera eraman gintuen, berak eta bere kolaboratzaile taldeak aurkitutako harrobiak ikustera. Ikerketaren inguruko xehetasun guztiak kontatu zizkigun. Aukera aprobetxatuz inguruko ondarearen beste elementu interesgarri batzuk bisitatzeko. Arratsaldean Oiartzungo Yurrita errota bisitatzera eraman gintuen. 12 lagun parte hartu zuten.

3. Centro de documentación

3.1 Colección Local de Altza

A finales de diciembre, la Colección Local cuenta con 19.204 documentos catalogados (1.513 más que el año pasado), de los que 15.601 pueden consultarse en www.altza.info (1.620 más que el año pasado).

La mayor parte de los nuevos documentos corresponde a la hemeroteca (1.149) de los años de la Guerra Civil. También se han catalogado 388 documentos históricos, 230 fotografías y 31 audiovisuales.

En lo que respecta a los datos de difusión de la Colección, estos siguen siendo buenos. Según Google Analytics, el número de usuarios ha sido de 4.002, 250 más que el año anterior, y el número de visitas ha sido de 83.299, 19.525 menos que el año pasado.

Continuando con la difusión, en Casares se ha mantenido hasta el inicio de la pandemia el servicio de consulta que se ofrece los jueves por la tarde, de 17:30 a 20:30 horas. En ese corto periodo ha habido 8 y, junto a este servicio, se han intercambiado 284 mensajes por correo electrónico y teléfono, algunos de ellos agrupados en torno a 4 investigaciones universitarias.

Además, se han publicado seis artículos relacionados con la Colección en el blog Estibaes, y como en los dos años anteriores, se ha participado en el montaje de una exposición fotográfica en Garbera, que este año ha estado dedicada a Intxaurren

3.2 Altzapedia

En el sitio www.altza.eus, construido básicamente a partir de las referencias procedentes de las publicaciones y el centro de documentación de AHM, este último año se han publicado 25 nuevas fichas y poco a poco se han ido completando otras que ya estaban abiertas. En total hay 839.

4. Proyecto Lekukoak

Con la puesta en marcha de nuevo del espacio web Altzanet hemos empezado a ofrecer los contenidos de las grabaciones realizadas dentro del proyecto Lekukoak de un modo estructurado. Tras un proceso de edición y codificación de los contenidos, en este momento, ya se pueden consultar las entrevistas realizadas a: Alfonso Cañamero, Antonio Dávila, Dionisio Etxauri, Juan Sánchez, Lucia Saiz, Luis de la Torre, Nieves Irisarri, Pakita Anabitarte, Pako Muñoa y Pepita Sarriegi.

Son más de 10 horas de testimonios ofrecidos en 128 fragmentos según temática. Estos contenidos se han depositado en un canal de Youtube al que se puede acceder también desde Altzanet. A lo largo del año, terminaremos de ofrecer el resto de entrevistas.

5. Excursiones

5.1 Plus 55 Caminos desde Altza

Este ha sido el programa de paseos de la temporada 2020, reducida al periodo octubre-noviembre a causa de la pandemia:

22 de Octubre: ALTZA-MOLINAO-TXIPRES-KUTARRO-IRASUENE- ALTZA

- 05 de Noviembre: ALTZA - SAN MARCOS - TXORITOKIETA
- 12 de Noviembre: HERRERA - ULÍA - SAGUÉS
- 19 de Noviembre: ALTZA - SANTIAGOMENDI
- 26 de Noviembre: ALTZA - MITXINTXOLA (JAIZKIBEL)

Para su realización ha habido que limitar el número de plazas, inscribirse con antelación, organizarse en grupos reducidos y mantener las medidas de seguridad (mascarilla, distancia), lo que no ha impedido poder disfrutar de los paseos en buena compañía.

5.3 Visita a canteras moleras y mugas en Andatza

El 7 de febrero hicimos una excursión por el monte Andatza, de la mano de Javi Castro. Visitamos los mugaris del monasterio de Roncesvalles, seis canteras moleras y la antigua fábrica de seda. A lo largo del recorrido hubo explicaciones de carácter geológico, histórico, y todo lo relacionado con la cantería (canteros, medidas, pleitos...). Participaron 19 personas.

5.4 Canteras de piedras de molino en Jaizkibel y el molino Yurrita

El 24 de octubre Javi Castro nos llevó a ver las canteras encontradas por él y su grupo de colaboradores en Jaizkibel y nos contó todos los detalles que han rodeado a la investigación hasta dar con ellas, aprovechando la ocasión para visitar otros elementos interesantes del patrimonio de la zona. Por la tarde nos llevó a visitar el molino Yurrita, en Oiartzun. Participaron 12 personas.

6. Altza Natura

Aurreko urteetan bezala, otsailerako oso aurreratuta zeuden Naturaldiaren VIII. edizioa prestatzeko lanak, baina, zoritxarrez, pandemiak bertan behera utzi behar izan zuen. Maiatzean egitea zen asmoa, Bidebietara ematen duen Uliako mendialdea erreferentzia gisa hartuta eta Interpretazio Zentroarekin lankidetzan. Argazki-rally berri bat, horretarako prestatutako urmaeletan bizi diren narrastien eta anfibioen bizitzaren behaketa, eta haziei eta baratzeen jarduerari buruz hitz egitea. Plan hori egoera berezi hau amaitu bezain laster berriro martxan jartzea espero dugu..

7. Barrutia

Nahiz eta AHMK ez duen ordezkariarik Barrutiko Batzarrean, bertako batzorde eta lantaldeetan parte hartzen du, ElkartekBAI osatzen duten elkarteen taldearekin lankidetzan estuan.

8. Altza eta Gerra Zibila

- Altza durante la guerra civil española” liburua (ikus xx eta xx orr.)
- 80 urteko anexioa: 2020. urtean anexioaren 80. urteurrenaren inguruan sei artikulu argitaratu ditugu Estibaus buletinean. (ikus xx eta xx orr.)
- Hautatutako korporazio errepublikarra aintzatestea: Barrutiko Batzarrean ordezkaturik dauden elkarteekin babesarekin, Donostiako Udalarari eskatu genion Errepublikari ekarri zuten udal hauteskundeetatik sortutako udalbatza ahazturatik erreskatatzea eta zor zaion aitorza ematea. Udalak onartu egin du eta batzorde bat sortu da 2021erako, eta batzorde bat osatu da urtean zehar gauzatzeko.

9. Elkartearen bizitza

BAJAK

- Peio Artola Maritxalar
- Jose Antonio Zelaia Etxeberria
- Alberto Martínez Artola
- Juan Garbizu Aranburu (+)

Une honetan elkarteak 197 bazkide ditu.

Aurkeztutako 2020. urteko memoria aho batez onartzen da.

6. Altza Natura

Como en años, para febrero ya estaban muy adelantados los trabajos preparatorios para la realización de la VIII. edición de Naturaldía, pero, por desgracia, la pandemia obligó a su suspensión. La idea era realizarla en mayo, tomando como referencia la ladera de Uliá que da a Bidebieta, y en colaboración con el Centro de Interpretación. Un nuevo rally fotográfico, la observación de la vida de los reptiles y los anfibios que habitan las charcas habilitadas al efecto, y hablar en torno a las semillas y la actividad de las huertas. Un plan que confiamos en poder retomar en cuanto termine esta situación especial.

7. Distrito

Aunque AHM no cuenta con un representante en la Junta de Distrito, sí que participa en las comisiones y grupos de trabajo del mismo, en estrecha colaboración con el grupo de asociaciones que conforman ElkartekBAI.

8. Altza y la Guerra Civil

- Libro “Altza durante la guerra civil española” (ver pp. xx y xx)
- 80 años de anexión. En 2020 hemos recordado el 80 aniversario de la anexión con la publicación de seis artículos al respecto en Estibaus. (ver pp. xx y xx)
- Reconocimiento de la corporación republicana electa. Con el respaldo de las asociaciones representadas en la Junta del Distrito, solicitamos al Ayuntamiento donostiarra el reconocimiento y el rescate del olvido de la corporación altzatarra surgida de las elecciones democráticas que trajeron la República. El Ayuntamiento ha accedido a ello y se ha creado una comisión para llevarlo a cabo en 2021.

9. Vida de la asociación

BAJAS

- Peio Artola Maritxalar
- Jose Antonio Zelaia Etxeberria
- Alberto Martínez Artola
- Juan Garbizu Aranburu (+)

En la actualidad la asociación cuenta con 197 socias y socios.

Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2020.

2. Ekonomi balantzea – 2020

2. Balance económico – 2020

	SARRERAK	GASTUAK
Aurreko saldoa (2020/01/01)	8.489,57	
Bazkide kuotak	1.924,77	
Tokiko Bilduma	5.000,00	1.348,31
“Gerra Zibila Altzan” proiektua	266,23	1.865,01
“Altza ezagutuz” programa	375,00	326,09
“Estibaus” buletina		1.341,60
Altzanet		1.017,97
Txangoak		69,00
Egutegia - 2020	90,00	
Egutegia - 2021		662,17
Elkartearen bizitza		2.079,23
GUZTIRA ...	16.145,57	8.709,38

SALDOA (2020/12/31): 7.436,19 €

Altza, 2021eko urtarrilaren 15a.

Diruzainak aurkeztutako 2020. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2020 presentado por el Tesorero.

<p>3. Bazkide berrien onarpena eta bajak</p> <p>BAJAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Peio Artola Maritxalar • Jose Antonio Zelaieta Etxeberria • Alberto Martínez Artola • Juan Garbizu Aranburu (+) 	<p>3. Admisión de nuevos socios y socias, y bajas</p> <p>BAJAS</p> <ul style="list-style-type: none"> • Peio Artola Maritxalar • Jose Antonio Zelaieta Etxeberria • Alberto Martínez Artola • Juan Garbizu Aranburu (+)
<p>4. 2021. urterako egitasmoa</p> <p>2020. urtean zehar garatzeko asmoa daukagun jarduerak hauek dira:</p> <p>Casares-Tomasene Kultur Etxearekin elkarlanean:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Altzako Tokiko Bilduma • Altzatik abiatutako ibilbideak (Plus 55) • Altzako Naturaldia <p>Elkartearen barneko jarduerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Altzanet web gunea (25. urteurrena) • Ganbara bildumaren katalogoa • Elkartearen artxibategia <p>Jarduera orokorrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lekukoak • Dokumentala: 50-60 hamarkadetakako immigrazio • Kiroldedia/amiantoa • Barutia • II. Errepublikan Altzan: Aitortza 1931eko korporazioari • Altzapedia • Ibilaldiak • Estibaus bloga eta buletina • 2021. urteko egutegia. • Argazki erakusketa (Bidebieta) • Beste elkarteekin elkarlana: Harri-Berri Oleta Guraso Elkarte, Cristina-enea,... <p>Jarduera horien finantzatzeko bazkideen kuotak, Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmenaren ekarpena, eta elkartearen diru-erreserba daukagu.</p>	<p>4. Plan de actividades para el año 2021</p> <p><i>Las actividades previstas para desarrollar en 2020 son la siguientes:</i></p> <p><i>En colaboración con la Casa de Cultura Casares-Tomasene:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Colección Local de Altza</i> • <i>Caminos desde Altza (Plus 55)</i> • <i>Jornadas de la Naturaleza de Altza.</i> <p><i>De carácter interno de la asociación:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Sitio web Altzanet (25 aniversario)</i> • <i>Catálogo de la Colección Ganbara</i> • <i>Archivo de la asociación</i> <p><i>Actividades:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Lekukoak</i> • <i>Documental: Inmigración años 50-60</i> • <i>Polideportivo/ Amianto</i> • <i>Distrito</i> • <i>2ª República en Altza: reconocimiento corporación 1931</i> • <i>Altzapedia</i> • <i>Excursiones</i> • <i>Blog y el boletín Estibaus</i> • <i>Calendario 2021.</i> • <i>Exposición de fotografías de Bidebieta</i> • <i>Colaboraciones con otras asociaciones: AMPA Harri-Berri Oleta, Cristina-enea,...</i> <p><i>Para la financiación de estas actividades contamos la aportación económica de los socios y socias, el convenio de colaboración de la Colección Local, y el fondo de reserva.</i></p>
<p>5. Norberak dakarrena</p> <p>Batzarrean 2020an hildako bazkideekin gogoratu ginen.</p>	<p>5. Ruegos y preguntas</p> <p><i>En la Asamblea tuvimos un recuerdo cariñoso para las socias, fallecidas en 2020.</i></p>
<p>6. Aktaren onarpena</p> <p>Batzarraren akta irakurri ondoren aho batez onartua izan zen.</p> <p style="text-align: center;">Idazkaria</p> <p style="text-align: center;">Iñigo Landa</p>	<p>6. Aprobación del acta</p> <p><i>Se procedió a la lectura de la presente acta y fue aprobada por unanimidad.</i></p> <p style="text-align: center;">Lehendakaria</p> <p style="text-align: center;">Jon Serrano</p>